

**HONDAKINAK KUDEATZEKO KALE HEZITZAILEAK HAUTATZEKO PROZESUA: KALE HEZITZAILEEN
ARDURADUNA ETA 3 KALE HEZITZAILE**

ATARIKOA

Urola Kostako Udal Elkarteak Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako etxe, komertzio, zerbitzu eta industrietan sortutako etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzu mankomunatua jarriko du martxan 2018ko urtarrilaren 1ean.

Udal Elkarteak erabaki du, deialdi honen bidez, zerbitzu hori martxan jarri eta ezartzen lagunduko duten kale hezitzaileak kontratatzea.

Hondakinak era mankomunatuan biltzeko proiektu horren bidez, etxeko hondakin guztiak biltzeko zerbitzua Udal Elkarteak kudeatuko du, era honetara:

Herritarrentzako zerbitzua:

Kaleko edukiontzien bidez jasoko dira honako hondakinak (errefusa eta hondakin organikoen edukiontziak txartel magnetikoaren bidez irekiko dira):

- Errefusa
- Hondakin organikoak
- Papera/kartoia
- Ontzi arinak
- Pilak
- Arropa, ehunki eta etxeko bestelako tresna elektrikoak
- Sukaldeko olio begetala
- Beira

Birziklapen etxola bidez jasoko dira: aparailu elektriko txikiak, arropa, erabilitako landare olioak, merkuriozko termometroak, pilak, erradiografiak, aerosolak, garbiketako produktuak, tinta eta toner kartutxoak, pintura, motor olioak, fluoreszenteak, kontsumo gutxiko bonbillak...

Merkataritza, ostalaritza, zerbitzuak:

Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako establezimenduei atez ate jasoko zaizkie honako hondakinak:

- Errefusa
- Hondakin organikoak
- Papera/kartoia

Enpresak:

Enpresei atez ate jasoko zaizkie honako hondakinak:

- Errefusa
- Hondakin organikoak

- Papera/kartoia
- Ontzi arinak
- Plastiko filma
- Egurra

Une honetan eskualdean biltzen diren hondakinen %40 inguru biltzen da bereiztuta. Zerbitzu berriaren helburua da gutxieneko tasa hauek lortzea:

- 2018an: %60.
- 2019an: %60tik %70era.
- 2020an: %70etik %75era.

Zerbitzuak hainbat aldaketa dakartza aurreko zerbitzuarekin alderatuta, hala nola:

- Etxeko hondakin guztiak erakunde batek kudeatuko ditu, Urola Kostako Udal Elkarteak.
- Bereiztuta bildutako hondakin kopurua nabarmen handitu nahi da.
- Herritarren kasuan, hondakin organikoen eta errefusaren edukiontzia txartel magnetikoaren bidez irekiko dira.
- Bost herrietako merkataritza, ostalaritza, zerbitzu eta industria enpresei atez ateko zerbitzua eskainiko zaie, hondakinak bereiztuta biltzeko.

Hori guztia bideratzeko, Udal Elkarteak kale hezitzaileak (arduradun bat eta hiru kale hezitzaile) kontratatuko ditu, zerbitzu berriak ekarriko dituen aldaketa eta gorabeherak bideratzeko eta hondakinak bereiztuta biltzeko helburuak betetzen laguntzeko.

OINARRIAK

1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da Urola Kostako Udal Elkarteko Ingurumen Saileko hondakinak kudeatzeko zerbitzuko kale hezitzaileak kontratatatzeko hautaketa prozesua bideratzea. Hona hemen lanpostuen ezaugarriak:

- Lanpostua: Kale hezitzaileen arduraduna
- Lanpostu kopurua: 1
- Lan-harremana: bitarteko funtzionarioa
- Saillapen-taldea: A1
- Ordainsaria: Udal Elkarteko lantsarien mailen taulako 13,5 maila
- Hizkuntza-eskakizuna: 3
- Lanaldia: osoa
- Hasiera: aurreikuspena, 2017ko ekaina.
- Iraupena: 2018ko abenduaren 31 arte.
- Proba epea: 3 hilabete.

- Lanpostua: Kale hezitzaileak
- Lanpostu kopurua: 3

- Lan-harremana: bitarteko funtzionarioa
- Saillapen-taldea: C1
- Ordainsaria: Udal Elkarteko lansarien mailen taulako 10 maila
- Hizkuntza-eskakizuna: 3
- Lanaldia: osoa
- Hasiera: aurreikuspena, hezitzaile bat 2017ko ekaina; beste biak 2017ko iraila.
- Iraupena: 2018ko abenduaren 31 arte.
- Proba epea: 3 hilabete.

Lanaldia goiz eta arratsalde izango da, Udal Elkarteak ezartzen duen lan egutegi eta ordutegiarekin, zerbitzuaren beharren arabera. Halaber, asteburu eta jaiegunetan ere inoiz lan egin beharko da, zerbitzuan sortzen diren beharren arabera.

2. Eginkizunak

Kale hezitzaileak eta kale hezitzaileen arduraduna Udal Elkarteko Ingurumen Sailean kokatuko dira eta lan egingo dute sail horretako arduradun eta teknikariaren agindu eta esanetara.

Lanpostuen eginkizun nagusia da Urola Kostako Udal Elkartearen lurralde eremuan (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaian) etxeko hondakinak gaika bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren ezarpenean laguntzea eta ezarpen fasean zerbitzua kontrolatzea eta jarraipena egitea. Zehazki honako eginkizunak burutu beharko dituzte:

- Lanpostua: Kale hezitzaileen arduraduna
 - Kale hezitzaileen lan eta eginkizunen plangintza egin eta jarraipena egitea.
 - Eginkizun eta lanak banatzea kale hezitzaileei.
 - Lanen jarraipen txostenak egin eta aurkeztea.
 - Kale hezitzaileen lana koordinatzea Ingurumen Saileko arduradunarekin eta teknikariekin.
 - Zerbitzu berriaren komunikazio lanak burutzea, Udal Elkarteko Euskara eta Komunikazio Zerbitzuarekin elkarlanean.
 - Helburuak betetzeko proposamenak egin eta aurkeztea.
 - Lanak koordinatzea udal zerbitzuekin edota hondakinak gaika biltzeko azpikontrataturako enpresekin.
 - Kale hezitzaileen lanpostuan definitutako eginkizunak burutzea.
 - Ingurumen Saileko arduradunek agindutako bestelako lanak egitea.
- Lanpostua: Kale hezitzaileak
 - Zerbitzu berriaren inguruko informazio, sentsibilizazio eta komunikazio lanak egitea.
 - Erabiltzaileei arreta eta argibideak ematea.
 - Edukiontzia irekitzeko txartel magnetikoen sistema kudeatzea (txartelak egin, banatu...).

- Erabiltzaileak sentsibilizatzea, gune “ilunak” identifikatzea eta erabiltzaileei zuzenean ohartarazpenak egitea.
- Udal zerbitzuei informazioa eta prestakuntza ematea zerbitzu berriari buruz eta zerbitzu horiekin elkarlanean aritzea.
- Ingurumen Saileko arduradunek agindutako bestelako lanak egitea.

3. Izangaiek bete beharreko baldintzak

Onartua izan eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko ondorengo baldintzak bete behar dituzte izangaiek, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen:

- a) Espainiar nazionalitatea izatea, Europar Batasuneko kide diren estatueto baten herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra. Parte hartu ahal izango du, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatueto herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat urte baino gutxiago badituzte, edo adin horretatik gorakoak, baina bere kontura bizi direnak.
- b) 18 urte betetik izatea eta derrigorrezko erretiroa hartzeko adina ez gainditzea.
- c) Honako ikasketa tituluaren jabe izatea edo eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea, kasuan kasu:
 - Kale hezitzaileen arduraduna: Unibertsitate gradua.
 - Kale hezitzaileak: Batxilergoa edo Teknikoa (Lanbide Heziketako Goi Mailako Teknikaria edo Teknikari Espezialista) edo baliokidea.
- d) Hirugarren hizkuntza eskakizunaren titulu edo ziurtagiriaren jabe izatea (edo C1 mailaren baliokidea; ikus baliokidetasunak honako Dekretuan: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena (azaroaren 15eko EHAA, 219 zk.).
- e) B1 gida-baimena izatea.
- f) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea. Baldintza hori egiaztatu beharko dute kontratua egiteko proposamena jasotako izangaiek, eskatzen zaien unean.
- g) Diziplina-espediente bidez administrazio publikoen, organo konstituzionalen edo autonomia erkidegoetako organo estatutarioen zerbitzura aritzeko bananduta ez egotea; halaber, epai bidez desgaitze absolutu edo berezirik ez izatea, lanpostu edo kargu publikoan aritzeko, funtzionarioen eskalan sartzeko edo, lan itunpeko langileen kasuan, desgaitutako lanpostuaren antzeko eginkizun edo jarduerak burutzeko. Beste estatu bateko naziotasuna izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea; halaber, bere estatuan enplegu publikoa lortzea galarazten dion diziplina zigor edo antzekorik ez izatea.

- h) Administrazioan lan egiteko bestelako bateraezintasun edo ezintasunik ez izatea, kasuan kasuko lege-xedapenek ezarritakoen argitara.

4. Eskabideak

Lehiaketan parte hartzeko eskabidea Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakariari zuzenduko zaio eta oinarri hauei erantsita doan II. ERANSKINEKO ereduaren arabera egingo da. Izangaiek eskabidean adieraziko dute hirugarren oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, beti ere eskabideak aurkezteko epe-muga erreferentziazat hartuta.

Eskabidearekin batera aurkeztu behar dira parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko agiriak, hala nola:

- NANaren fotokopia konpultsatua edo, atzerritarren kasuan, nortasuna eta nazionalitatea egiaztatzeko agiriena.
- Eskatutako tituluaren kopia konpultsatua.
- Hirugarren hizkuntza eskakizunaren (edo baliokidearen) egiaztagiraren kopia konpultsatua.
- B1 gida-baimenaren kopia konpultsatua.
- Curriculum vitae.

Lehiaketan baloratuko diren merezimenduen egiaztagiriak (prestakuntza eta lan-esperientzia) aurkeztu beharko dira oposizioko fasea amaitu ondoren, Epaimahaiak eskatzen duen era eta epean.

Nolanahi ere den, lehiaketan baloratuko diren merezimenduak eskabidean adierazi behar dituzte izangaiek. Epaimahaiak ez du kontuan hartuko eskabidean adierazten ez den merezimendurik.

Deialdian parte hartzeko eskakizunak nahiz merezimenduak egiaztatzeko, jatorrizko agiriak edo konpultsatutako kopiak aurkeztu behar dira.

Kopiak Udal Elkartearen erregistroan edo gaitasuna duen fede emaile publiko baten aurrean konpultsatu ahal izango dira. Hori egin ahal izateko, jatorrizko agiria eta kopia aurkeztu behar dira.

5. Eskabideak aurkezteko epea eta lekua

Eskabideak aurkeztuko dira Urola Kostako Udal Elkartearen sarrera-erregistroan (Urdaneta bidea 6, Zarautz), 8:00etatik 15:00etara.

Aurkezteko epea amaituko da 2017ko apirilaren 12an (egun hori barne).

Horrez gain, eskabideak aurkeztu ahal izango dira azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak aurreikusitako bestelako bideak erabiliz.

Aipatutako Legearen 38.4 artikuluari jarraiki eskabidea postetxean aurkezten bada, irekitako kartazalean aurkeztuko da, postetxeko funtzionarioak data eta zigilua jar diezaion, eskabideak aurkezteko epean aurkeztu dela ziurtatzeko. Hori ezinbesteko baldintza izango da eskabideari Udal

Elkarteko sarrera-erregistroan postetxean aurkeztutako dataekin sarrera emateko. Eskabideari jarri behar zaio zigilua.

6. Onartu eta baztertutako eskabideak

Onartutako zein baztertutako eskabideen zerrenda Udal Elkartearen webgunean argitaratuko da. Baztertutako eskabideek 3 laneguneko epea izango dute baztertzea eragin duten akats edo gabeziak osatzeko edo zerrenda horien aurkako erreklamazioak aurkezteko, zerrendak webgunean argitara eman eta hurrengo egunetik kontatuta.

Behin-behineko zerrenda horiek behin betiko bilakatuko dira erreklamaziorik ez bada. Erreklamaziorik baldin badago beste erabaki bat emango du Lehendakariak, erreklamazioa onartu edo ezesteko eta behin betiko zerrenda onartzeko. Erabaki hori eta behin betiko zerrenda argitara emango da, behin-behineko zerrenda argitara emateko modu berean.

7. Epaimahai kalifikatzailea

Hautaketa prozesuaren Epaimahai kalifikatzailea kide hauek osatuko dute (edo horien ordeztuz izendatzen diren ordeztuko funtzionarioek):

Epaimahaiburua:

- Udal Elkarteko Ingurumen Saileko arduraduna.

Epaimahaikideak:

- Udal Elkarteko Ingurumen Saileko teknikaria.
- Udal Elkarteko Enplegu Zerbitzuko teknikaria.
- Udal Elkarteko idazkari kontu-hartzailea.

Idazkaria:

- Euskara eta Komunikazio Zerbitzuko arduraduna.

Epaimahaiko kideak Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakariak izendatuko ditu eta izendapena Udal Elkartearen webgunean emango da argitara.

Epaimahaiak jarduteko autonomia osoa izango du eta prozeduraren legezkotasuna eta objektibotasuna zaindu eta bermatuko ditu. Halaber, Epaimahaiak jokatu du 30/1992 Legearen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Jardunbide Komunaren, 22-27. artikuluetan (biak barne) xedatutakoaren arabera.

Epaimahaia osatzen den ekitaldian, epaimahaiak, hautaketa-prozesua behar bezala eta egoki bideratzeko behar diren erabakiak hartuko ditu. Epaimahaiaren jardura baliokoa izateko, kideen gehiengoak parte hartu behar du, eta erabakiak bertaratzen direnen gehiengoak hartuko ditu. Kide guztiek ahotsa eta botoa izango dute.

Epaimahaiak beste teknikari edo aholkulari batzuen laguntza eskatzea erabaki ahal izango du, hautaketa-prozesuaren atal jakin batzuetarako. Horrela baldin bada, dagokion aktan jasoko da zein teknikari edo aholkulariren laguntza jasoko duen, zertarako eta zer nolako muga eta baldintzekin.

Era berean, Epaimahaiak oinarriaren inguruan sortzen diren zalantzak argituko ditu, hautaketa-prozesua behar bezala burutzeko behar diren erabakiak hartuko ditu eta oinarriotan zehazten ez diren gorabeheratan aintzat hartu behar diren irizpideak ezarriko ditu, indarrean dagoen araubidearen arabera.

8. Hautaketa prozesua

Hautaketa prozesuak bi fase izango ditu, lehendabizi oposizioa (ariketak) eta ondoren merezimenduen lehiaketa. Bi faseetan eskuratutako puntuen baturak emango du azken emaitza. Hautaketa-prozesuak orotara 100 puntuko balioa izango du (oposizioak 70 puntu eta merezimenduen lehiaketak 30 puntu).

8.1. Oposizioa

Onartutako izangaiek oposizio faseko ariketak egingo dituzte lehendabizi. Ariketak egiteko egun eta orduak eta ariketen emaitzak Udal Elkartearen webgunearen bidez emango dira jakitera.

Oposizio faseak 3 ariketa izango ditu. Ariketa guztiak derrigorrezkoak eta baztertzailak dira eta deialdi bakarrean egingo dira.

8.1.1. Lehen ariketa: idatzia, erantzun aukera anitzeko test galdetegia

Lehen ariketa erantzun aukera anitzeko test galdetegia izango da, Epaimahaiak erabakitzen duenaren arabera. Galderak oinarri hauen I. eranskinen gai-zerrendari buruzkoak izango dira, Epaimahaiak erabakitzen duenaren arabera. Lehen ariketa 20 punturen gainean kalifikatuko da eta gainditzeko 10 puntu lortu beharko dira gutxienez.

8.1.2. Bigarren ariketa: ariketa teoriko edota praktikoa, idatziz

Bigarren ariketa oinarri hauen I. eranskinen gai-zerrendako gaien buruzko ariketa idatzi teoriko edota praktikoa(k) izango d(ir)a, Epaimahaiak erabakitzen duenaren arabera. Epaimahaiak erabaki ahal izango du ariketa hau paperean egitea edo euskarri informatikoan egitea. Bigarren ariketa 25 punturen gainean kalifikatuko da eta gainditzeko 12,5 puntu lortu beharko dira gutxienez.

8.1.3. Hirugarren ariketa: ahozko ariketa

Hirugarren ariketa ahozko ariketa izango da, oinarri hauen I. eranskinen gai-zerrendako gaien buruzkoa eta oinarri hauen 2. baldintzan zehaztutako eginkizunak burutzeko beharrezko diren gaitasun eta konpetentziari buruzkoa (hala nola, komunikazio gaitasuna, herritarrei arreta, talde-lana, antolaketa eta plangintza...), Epaimahaiak erabakitzen duenaren arabera. Hirugarren ariketa 25 punturen gainean kalifikatuko da eta gainditzeko 12,5 puntu lortu beharko dira gutxienez.

8.1.4. Ariketen hurrenkera

Ariketak hurrenkera horretan egingo dira. Nolanahi ere den, eraginkortasunagatik eta hautaketa-prozesua hobeto kudeatzeko, Epaimahaiak erabaki ahal izango du bi ariketa egun berean egitea. Horrela egitea erabakiz gero, bietatik lehena kalifikatu ondoren zuzendu eta kalifikatuko ditu Epaimahaiak lehena gaingitzen duten izangaien bigarren ariketak.

8.1.5. Behin-behineko eta behin betiko emaitzak

Kalifikatu ondoren, Epaimahaiak ariketa bakoitzaren behin-behineko emaitzak onartu eta argitaratuko ditu eta hautagaiei 3 laneguneko epea utziko die erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak idatziz aurkeztu beharko dira Udal Elkarteko sarrera erregistroan.

Erreklamaziorik ez baldin bada, behin-behineko emaitzak behin betiko bilakatuko dira besterik gabe. Erreklamaziorik baldin bada, aztertu, dagokiona ebatzi eta behin betiko emaitzak onartu eta argitaratuko ditu Epaimahaiak.

8.1.6. Isilpekotasuna

Epaimahaiak behar diren neurriak hartu eta behar diren baliabideak erabiliko ditu oposizio faseko ariketak zaindu eta isilpean edukitzeko, egiten diren arte. Ariketa horiek ezagutuko dituzte soilik Epaimahaiko kideek. Halaber, Epaimahaiak behar diren neurriak hartuko ditu hautagaien nortasuna isilpean edukitzeko, ariketen kalifikazioak onartu arte.

8.2. Merezimenduen lehiaketa

Epaimahaiak oposizio fasea gaingitzen duten hautagaien merezimenduak baloratuko ditu fase honetan.

Horretarako, oposizio fasea amaitu ondoren, oposizio fasea gaingitzen duten hautagaiei 3 laneguneko epea emango zaie lehiaketan baloratzeko merezimenduen egiaztagiriak aurkezteko (lan esperientzia eta prestakuntza), webgunean horretarako iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Merezimenduen lehiaketan gehienez 30 puntu lortu ahal izango dira, ondoko irizpide hauen arabera:

- a) Lan-esperientzia, deialdi honetako 2. oinarrian zehaztutako eginkizunak burutzen, administrazio publikoan nahiz enpresa pribatuan: hilabete oso bakoitzeko 0,5 puntu. Atal honetan gehienez ere 10 puntu eskuratu ahal izango dira.
- b) Lan-esperientzia, deialdi honetako 2. oinarrian zehaztutako eginkizunekin zerikusia duten bestelako lanetan, administrazio publikoan nahiz enpresa pribatuan: hilabete oso bakoitzeko 0,25 puntu. Atal honetan gehienez ere 5 puntu eskuratu ahal izango dira.

Lanpostu batek aurreko irizpide horiekiko zer-nolako antza duen Epaimahaiak aztertu eta erabakiko du, eta egoki irizitako zuzenketa faktoreak aplikatuko ditu, bai hilabete bakoitzeko eman beharreko puntu kopuruari dagokionez, bai lor litekeen gehieneko kopuruari dagokionez.

c) Prestakuntza: 2. oinarrian zehaztutako eginkizunekin lotuta dauden edo zerikusia duten prestakuntza osagarri, titulu akademiko, jardunaldi, ikastaro eta antzekoak. Gehienez 15 puntu lortu ahal izango dira, ondoren zehazten diren atal-muga hauekin:

- 250 orduetik gorako ikastaro bakoitzeko 3 puntu, gehienez 6 puntu.
- 100-249 ordu arteko ikastaro bakoitzeko puntu 1, gehienez 5 puntu.
- 20-99 ordu arteko ikastaro bakoitzeko 0,25 puntu, gehienez 4 puntu.

Atal bakoitzean egiaztatutako ikastaro, gradu ondo, titulu edo baliokideek atal horretarako ezarritako gehieneko muga gainditzen badute, hurrengo atalean balioetsiko dira.

Ez da balioetsiko eskabidean zehazten ez den eta behar bezala egiaztatzen ez den merezimendurik.

Lan-esperientzia egiaztatzeko aurkeztu behar dira batetik, bizitza laborala eta, bestetik, enpresako ziurtagiriak. Enpresa-ziurtagiriek argi eta garbi agertu behar dituzte honako datuak: lanpostuaren izena, kontratuaren iraupena eta lanaldia eta burututako eginkizunak. Horrela ez bada, Epaimahaiak erabakiko du balioetsi ala ez eta nola balioetsi. Enpresa-ziurtagiririk izan ezean, lan kontratuaren kopia ere baliokoa izango da, lanpostuaren eginkizunak zehazten baditu.

Autonomo gisa izandako lan-esperientzia egiaztatzeko honakoak aurkeztuko dira: lan-bizitza, autonomo altaren egiaztagiria, dagokion epigrafearekin, egindako zerbitzuen egiaztagiria (fakturak, enpresa ziurtagiriak...).

Lan-esperientzia egiaztatzeko aurkeztutako dokumentuek esperientziaren funtzio eta eginkizunak eta epeak ez badituzte argi eta garbi zehazten, Epaimahaiak ez du merezimendu hori baloratuko.

Prestakuntza egiaztatzeko agiriek argi eta garbi adierazi behar dituzte prestakuntza-ikastaroaren izenburua, edukia eta iraupena. Horrela ez baldin bada, Epaimahaiak ez du merezimendu hori baloratuko.

Nolanahi ere den, beharrezkoa dela irizten badio, Epaimahaiak aukera izango du lan-esperientzia edo eta prestakuntza egiaztatzeko dokumentu osagarriak eskatzeko edo egiaztapen lanak egiteko.

9. Azken emaitzak eta Epaimahaiaren proposamena

Oposizio faseko eta merezimenduen lehiaketako emaitzak batu ondoren, Epaimahaiak behin-behineko azken emaitzak onartu eta argitaratuko ditu eta hautagaiei 3 laneguneko epea utziko die erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak idatziz aurkeztu beharko dira Udal Elkarteko sarrera erregistroan.

Erreklamaziorik ez baldin badago behin-behineko emaitzak behin betiko bilakatuko dira besterik gabe. Erreklamaziorik baldin bada, aztertu, dagokiona ebatzi eta behin betiko emaitzak onartu eta argitaratuko ditu Epaimahaiak.

Eginbide horiek burutu ondoren, Epaimahaiak hautaketa-prozesuan punturik gehien lortu duten pertsonak bitarteko funtzionario izendatzeko proposamena egingo dio dagokion Udal Elkarteko organoari.

Epaimahaiaren balorazioaren arabera deialdira aurkeztutako izangaien artean ez badago dena delako plaza(k) betetzeko gutxienezko baldintzak betetzen dituenik, plaza bete gabe utzi ahal izango da.

10. Lan-poltsa

Lan-poltsa eratuko da lehiaketan parte hartzen duten hautagaiekin, hautaketa-prozesuan eskuratutako puntuen hurrenkerarekin, antzeko eginkizunak burutzeko langile premiak betetzeko. Lan-poltsa horrek 3 urte egingo ditu indarrean, lan-poltsa eratzeko ebazpenaren datatik kontatzen hasita.

Lan-poltsaren bidez egingo den ordezkapenak edo bete behar den lanpostuak eskakizun zehatzak baldin baditu (titulazioa, hizkuntza eskakizuna edo bestelakoak) Udal Elkarateak eskakizun horiek betetzen dituzten hautagaiengana joko du, lan-poltsan lortutako puntuen hurrenkeran.

Udal Elkarateak lan-poltsako pertsonen lanpostu bat eskaintzen dienean, eskaintza onartzeko epea zortzi egunekoa izango da gehienez ere, deia edo mezu elektronikoa jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Halaber, laneratzeko epea hamabost egunekoa izango da gehienez ere (beranduago laneratzeko aparteko arrazoiak direnean izan ezik), deia edo mezu elektronikoa jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

11. Izaera pertsonaleko datuak

Izangaien izaera pertsonaleko datuak "giza baliabideak" izeneko fitxategian sartuko dira. Fitxategi hori Udal Elkarteko Idazkaritzak kudeatuko du eta hautaketa-prozesua bideratzeko erabiliko du. Izangaiek fitxategiko datuetara sartzeko, datuak ezeztatzeko, haien kontra agertzeko edo zuzentzeko eskubidea izango dute.

Datu pertsonalak tratatuko dira abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren eta ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuaren (izaera pertsonaleko datuak dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun neurriei buruzko araudiaren) arabera.

Era berean, izangaien identifikazio datuak eta harremanetarako telefono zenbakiak beste toki administrazio batzuei emango ahal izango dizkie Udal Elkarateak, aldi baterako eta gisa bereko lan beharrak betetzeko erabil ditzaten.

12. Gorabeherak

Oinarri hauetan zehaztu gabekoetarako, arlo horretan indarrean dagoen araubidea aplikatuko da.

Epaimahaiak eskubidea du hautaketa-prozesuan zehar sortzen diren zalantzak argitu eta prozesu hori behar bezala burutzeko hartu behar diren neurri eta erabakiak hartzeko, oinarriotan zehaztu gabe dauden alderdiei dagokienez.

13. Komunikazioak

Hautaketa prozesu honen inguruko komunikazioak (epeak, zerrendak, ariketen deialdiak, emaitzak...) Udal Elkartearen iragarkien taulan eta web orrian emango dira jakitera

Iragarkien taula: Urdaneta bidea 6, Zarautz; tel. 943890808

Webgunea: <http://www.urolakosta.eus/eu/lan-eskaintzak>

14. Aurka egitea

Interesatuak, deialdiaren, bere oinarrien eta deialdiak berak zein epaimahaiaren jardunak eragin ditzakeen ekintza administratiboen aurka jo dezakete, urriaren 1eko Herri Administrazioen ohiko Administrazio Prozeduraren 39/2015 Legeak xedatutako kasu eta moduetan.

Zarautzen, 2017ko martxoaren 28an

Igor Iturain Iburguren
Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakaria

I. ERANSKINA

GAI-ZERRENDA

KALE HEZITZAILEEN ARDURADUNA: GAI-ZERRENDA

1. Urola Kostako Udal Elkartearen lurralde eremua: udalerrriak, auzoak, industrialdeak.
2. Urola Kostako Udal Elkartearen erakundearen Estatutuak, programak eta zerbitzuak.
3. Urola Kostako Udal Elkartearen Ingurumen Zerbitzuak.
4. Hondakinak gaika biltzeko Urola Kostako Udal Elkartearen zerbitzuak
5. Bildutako hondakinak eta birziklatze-tasa Urola Kostako Udal Elkartearen lurralde eremuan: 2016ko datuak.
6. Bildutako hondakinak eta birziklatze-tasa Urola Kostako Udal Elkartearen lurralde eremuan: azken urteotako bilakaera.
7. Konposta Urola Kostako Udal Elkartearen lurralde eremuan.
8. 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakinei eta lur kutsatuei buruzkoa. I. atala: Xedapen eta printzipio orokorrak.
9. 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakinei eta lur kutsatuei buruzkoa. II. atala: Hondakinen politikaren tresnak.
10. 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakinei eta lur kutsatuei buruzkoa. III. atala: Hondakinen ekoizpena, jabetza eta kudeaketa.

Oharra: 1-7 gaietan erreferentzia gisa hartuko dira Urola Kostako Udal Elkartearen webgunean (www.urolakosta.eus) argitaratuta dauden eduki, informazio eta datuak.

KALE HEZITZAILEAK: GAI-ZERRENDA

1. Urola Kostako Udal Elkartearen lurralde eremua: udalerrriak, auzoak, industrialdeak.
2. Urola Kostako Udal Elkartearen erakundearen Estatutuak, programak eta zerbitzuak.
3. Urola Kostako Udal Elkartearen Ingurumen Zerbitzuak.
4. Hondakinak gaika biltzeko Urola Kostako Udal Elkartearen zerbitzuak.
5. Bildutako hondakinak eta birziklatze-tasa Urola Kostako Udal Elkartearen lurralde eremuan: 2016ko datuak.
6. Bildutako hondakinak eta birziklatze-tasa Urola Kostako Udal Elkartearen lurralde eremuan: azken urteotako bilakaera.
7. Konposta Urola Kostako Udal Elkartearen lurralde eremuan.
8. 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakinei eta lur kutsatuei buruzkoa. I. atala: Xedapen eta printzipio orokorrak: 1, 2, 3, 8, 12 eta 17. artikulua.

Oharra: 1-7 gaietan erreferentzia gisa hartuko dira Urola Kostako Udal Elkartearen webgunean (www.urolakosta.eus) argitaratuta dauden eduki, informazio eta datuak.



II. ERANSKINA

**HAUTAKETA-PROZESUA: HONDAKINEN KUDEAKETAKO KALE HEZITZAILEAK
ESKABIDEA**

Izen-abizenak: NAN zk.:

Helbidea: PK: Herria:

Tel.: Tel. mugikorra: E-maila:

Honakoa **ADIERAZTEN DUT**:

- Urola Kostako Udal Elkarteak ingurumeneko kale hezitzaileak (arduradun 1 eta 3 kale hezitzaile) bitarteko funtzionario gisa hautatu eta izendatzeko deitu duen hautaketa-prozesua arautzen duten oinarriak ezagutzen eta onartzen ditut.
- Hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko tituluaren jabe naiz.
- Parte hartzeko oinarriek ezarritako baldintza guztiak betetzen ditut.
- Eskabide honi erantsita doaz lehiaketan parte hartzeko eskatutako dokumentuak eta atzealdean adierazita daude merezimenduen lehiaketan baloratzeko merezimenduak.

Hori dela eta, honakoa **ESKATZEN DIZUT**:

Eskabide hau ontzat hartu eta hautaketa-prozesu honetan parte hartzea, honako lanpostuan (markatu X):

Kale hezitzaileen arduraduna (lanpostu 1)	<input type="checkbox"/>
---	--------------------------

Kale hezitzaileak (3 lanpostu)	<input type="checkbox"/>
--------------------------------	--------------------------

.....(e)n, 2017ko(a)ren (e)an
Sinadura

Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakaria
Urdaneta bidea 6, 20800 ZARAUTZ (Gipuzkoa).

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, izaera pertsonaleko datuak babestekoak, xedatzen duena betetzeko, aditzera ematen dizugu inprimaki honetan adierazten dituzun datuak Urola Kostako Udal Elkartearen jabetzakoa den eta "giza baliabideak" izena duen fitxategian txertatuko ditugula eta erabiliko direla zure eskaria bideratzeko administrazio-jardunbideek ezarritako eran. Halaber, aditzera ematen dizugu sarbide, zuzenketa, ezeztatze eta oposizio eskubideak gauzatzeko honako harrera zerbitzura jo dezakezula: Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz (Gipuzkoa).

ESKABIDEARI ERANTSITAKO AGIRIAK

Honako agiriak eranstean dizkiot eskabideari (markatu laukia):

- NANren fotokopia konpultsatua.
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia konpultsatua.
- 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko titulu edo ziurtagiriaren fotokopia konpultsatua.
- B1 gida-baimenaren fotokopia konpultsatua.
- Curriculum Vitaea.

LEHIAKETAN BALORATZEKO MERITUAK

Oharra: ondoko tauletan merezimenduak adierazi behar dira. Egiaztagiria ez dira eskabidearekin batera aurkeztu behar, baizik eta oposizio fasea amaitu ondoren.

Lan esperientzia

Administrazioa /Enpresa	Lanpostua	Hasiera	Amaiera

Prestakuntza

Emailea (ikastegia, unibertsitatea...)	Ikastaroaren izenburua	Ordu kopurua